



# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

5. Alea 1997ko Urtarrila



## GUATEMALA LURPERATUTAKO EGIA



ESKORIATZAKO  
UDALA  
Euskara Batzordea

### Izen/abizenak euskal grafiara aldatzea

Erderazko izenik edo erderazko grafiaz idatzitako izen edo abizenik baduzu eta euskaraz izan nahi badituzu, Udaletxeak aukera ematen dizu.

Zatoz Udal Bulegora, zabalik egoten da goizero 10,30etatik 13,30etara eta ostegunetan arratsaldeko 5etatik 7etara ere bai.

Telefonoak: 71.44.07 // 71.45.32

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

- Udaletxea 714407
- Udal Bulegoak 714532
- Udaltzaingoa 714407
- Euskaltea 792168
- Kultur-Etxea 714688
- Gizarte-Laguntzailea 714688
- Kiroletxea 715328
- Liburutegia 714688
- Luis Eceiza 714938
- Almen 714964
- Museo-Eskola 714688
- Ze Barri 714077
- Talde Antimilitarista 715028
- Irakasle Eskola 714157
- Osakidetza 714452
- Telesko 714917
- Taxia 714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 792800
- Renfe (Zumarraga) 721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 791419
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 088

**KARMELE AGIRREGABIRIA AGIRRE**

**Euskaltegiko Zuzendaria**

**1-Noiztik ari zara euskaltegian lanean?**  
1986ean hasi nintzen Arrasateko euskaltegian.

**2-Noiztik zara euskaltegiko zuzendaria?**  
Aurten hasi naiz.

**3-Zenbat jende dago euskera ikasten aurten euskaltegian?**  
86 ikasle daude.

**4-Ikasle horietatik, zenbat dira berriak?**  
40 bat berriak.

**5-Zenbat irakasle daude orain eta zenbat hasi ziren lehen urtean?**  
Orain 5 eta idazkari bat eta lehen 4 irakasle.

**6-Irakasle moduan edo zuzendari bezala, nola zaude hobeto?**  
Irakasle moduan.

**7-Zergatik?**  
Oraindik zuzendaria izaten ikasten ari naiz eta.

**8-Irakasle ez bazina, zer aukeratuko egingo zenuke?**  
Sendagilea beti gustatu zait.

**9-Zenbat talde daude euskaltegian?**  
8 talde, 7 aretxabaletan eta bakarra Eskoriatzan eta guraso taldea da. Ala ere aipatzekoa da euskaltegiak Eskoriatzan dituen lokalen egoera ez dela oso egokia, espero dezagun luzaro gabe aldatzea.

**10-Euskaltegian lan egiteaz gain, zertan erabiltzen duzu zure denbora?**  
Orain umea zaintzen eta umeaz gozaten.

**11-Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?**  
Diru laguntza gehiago emango nieke euskera bultzatu nahi duten talde eta elkarteei.

**12-Zer iruditzen zaizu Ze Barri aldizkaria?**  
Oso ona, pena bakarra orrialde gutxi izatea.



Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuena.**

  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**



Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA  
**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

## GABONAK ESKORIATZAN



Igaro dira aurtengo Gabonak ere, nobedade handiegirik gabe. Olentzaro etorri zitzairen ondo portatu ziren guztiei (guri ez, noski). Ume eta ez hain ume ugari ibili ziren Olentzarorekin batera kantuan bai elizateetatik, baita herritik bertatik ere. Gero arratsalde partera, tabernetan jartzen dituzten pikatzekoak direla edo, jende ugari bildu zen herriko kaleetan. Gero, denok afaltzera eta parranderoenak gauean kalera. Aurten beste urte batzutan baino jende gutxiago ibili zen gauez gure herriko kaleetan; ikusten da beste zenbait herritan ere tabernak zabaltzen hasi direla eta.

Bestalde, erregeen kabalgata aurten ezin izan da egin, laguntza emateko oso jende gutxi bait zegoen prest. Espero dezagun berriz ez gertatzea honelakorik.

## OHIULARI KLOWN

Gabonzar arratsaldean Ohilari Klown Bergarako antzerki taldea ikusteko aukera izan genuen, Eskoriatzak Insumisoek beren errifaren zozketaz bat antolaturiko ekintza batetan. Hasieran arazo txiki batzuk izan ziren, obraren izaera beragatik hamabost urtetik beherakoei ez bait zitzairen sartzen utzi. Obra ikusi zutenak oso pozik irten ziren bertatik. Eskoriatzan jende aurrean antzeztutako lana "Dena Klowntrolpean" izan zen. Bertan polizia batzuek gazte batzuk kanporatu behar dituzte etxe batetatik, ohizkoak diren kolpe eta korrikekin. Obra ikusten zegoen jendea ere obran sartzen zuten, noizean behin beraietako bati edozer eginaraziaz.

Ohiulari Klown taldekoak "Mugaz Gaindiko Pailazoak" talde barnean daude sarturik eta momentu honetan El Salvadorren aldeko lankidetzaren proiektu batetan daude sarturik "Irrifarrari inongo mugarik ez" lemapean.



## ZE BARRE

Protesta ugari egon da herrian kanpandorreen erloju digitala jarriko dela jakitean. Askoren eritziz Parrokia bezalako eraikuntza arkitektoniko postsinplista batek orratzdun erlojua behar du nahi ta ez. Gainera, diotenez, erloju digitalarekin batera etorriko den kanpai horia ez da bestelako kanpaia bezain ondo entzuten.

Hau entzuterakoan gure herriko autoritateak elkartu (Alkatea, Abadea, honen emaztea eta Medikua Jauna) eta lau leku desberdinetara joatea erabaki zuten. Alkateari Aitzorrotzera joatea tokatu zitzaion. Hau aurreko urtarrilak 9an gertatu zen. Orduetik inork ez du ikusi alkatea. Norbaitek informazioa balu, mesedez dei dezala Ze Barrira.

**A&B**  
aholkulariak

**LEGEZKOA  
FISKALA  
KONTULARIA  
LABORALA  
ASEGURUAK**

ALDETEC

----- **TASAZIOAK**  
----- **PERITAZIOAK**  
----- **PROIEKTU ING.**  
----- **OBRA ZUZENDARITZAK**  
----- **ERREFORMAK**

Gastañadui, 7  
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**  
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo  
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

# Eskoriatzar baten kontaketa pake prozesuaren aurrean

Uztailaren 28a zen, ostirala. Monzoi garaian geunden eta ohizkoa denez, euria ari zuen goian-behean. Ekintza anitzetarako areto hartan, Las Cruces herrian, Peten departamenduan, azken aldian Guatemalan arrunt bihurtzen ari den eginkizun batean ari ginen: sarraski baten hondakinak erakusten. Antropologorik egon ezean, denon lana bihurtu zen han zeuden 19 gorpuen hezurdurak antolatzea. Iaz bizitako esperientziaren ondoren, aurtengoa arinagoa gertatuko zitzailakoan geunden. Bai zera!

"Nire izena, Juan Biktima izan zitekeen. 14 urtez bizi izan nintzen Josefinos herrixkan. 1982ko apirilaren 29an, toki horretan, tragedia izugarria gertatu zen. Herrixka sarraskitu zutenean, nire bost senitarteko hilik utzi zituzten bertan...

Gaueko hamabi t'erdia aldera herriko sarreran tiroketa hasi zen. Aitak jazteko esan zigun. Bapatean gure etxearen kontra hasi ziren tiroak. Aitak atea zabaltzeko esan zidan, eta nik esandakoa bete nuen: berak ez ziola inori ezer zor eta kanpokoekin hitz egingo zuela esan zuen. Nire anaiatxoa besotan hartu eta ez hiltzeko esan zienean, hilik erori ziren. Gero ama eskutik heldu nuen eta atzetik irtetzeko bultza egin nion; baina berak zera zioen, "ez seme, zure aita hil dute, orain buka gaitzela guztiok". Barrurantz egin zuenean, bala batek bularrearjo eta auspez jausi zen. Besotan zeraman nire ahizpatxoa bizirik geratu zen, nahiz eta tiroka sartu zen tipoak kopetan ostiko bat eman. Ni, mahai azpian zegoen erropaz betetako ontzi batean ezkutatu nintzen, eta handik ikusi nuen ondoren gertatu zen guztia. Tiroketa lasaitu zenean, tipo bat etxean sartu zen: ohe gainean zeuden nire bi anai-arrebengana hurbildu eta tiro bana bota zien, eta irtetzerakoan eman zion ostikoa nire ahizpatxoari: bota militarrek, kamuflajeko fraka eta alkandora eta kapel militarra zeramatzan. Honegatik baieztza dezaket ejerzitioa izan zela hura egin zuena. Irtetzerakoan aita eta amari lepoa moztu zien.

Joan zenean, ahizpatxoa besotan hartu eta kanporantz egin nuen; orduan beste ahizpatxo batek hankatik heldu ninduen. Negarrik ez egiteko eskatu eta alde egin genuen; gau guztia inguruko ur potzu batean egin genuen. Hurrengo goizean etxera itzuli ginenean, beste ahizpa bat ere bizirik aurkitu nuen: ohe azpian egon zen ezkutatuta.

Gu Josefinos-etik irten ginenean, nire bost senideak botata geratu ziren etxean. Gero kontatu zidaten herritarrek lurperatu zituztela. Geroztik Las Cruces-en bizi gara."



## IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

## TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

Pub CIPRI'S

Behin etorri  
Eta baietz berriz...

Beste zenbait lekukoren arabera. "Palestinan kokaturiko destakamendu militarreko Los Vencedores konpainiako zenbait kide Los Josefinos herrixkan sartu ziren eta bertako etxeak erre ondoren, 19 pertsona hil zituzten: patruilari zibilak, jende heldua eta haurrak. Ekintza honen arrazoia, gerrilarekin zuten ustezko lotura..."

Gorpu hauen exhumazioa 1996ko martxoaren 15etik 28ra bitartean burutu zuten Guatemalako Antropologia Forense Elkareko (EAFG) kideek FAMDEGUA Giza Eskubideen aldeko Elkartearen eskutik. Hauek, Estatuko errepresio-aparatuek gauzatutako ekintza zitaren egia historikoa bilatzea dute helburu. Eta horretarako, beraien lana hiru arlotan oinarritzen da: bizirik geratu zirenen eta biktimen senideen testigantzak jaso, gorpuak identifikatu eta heriotzaren arrazoiak finkatu, eta, ondoren, lurperaketa senideen eskutik. Lortutako frogekin, horrelako sarraskien ardura izan dutenen aurkako prozesuak hastea exijitzen die justizi agintariei.



Baina, Josefinos-en suzko armetatik irteerako jaurtigaiak 27 zati jaso ziren arren, eta orduan soldadu zen Romeo Jerónimo Alvarezek hura egiteko agindua eman behar izan zuten Destakamenduko buru ziren De Leon kapitaina eta Bonilla de la Cruz subtenientearen izenak eman dituen arren, justiziak trabak baino ez ditu jartzen. Ez dago horrelako ekintzalk argitzeko interesik. Honen lekuko iaz ezagutu genuen Las Dos Erres-eko kasua dugu. Sarraski haren arduraduna izan zen Carias López tenientea oraindik ejerzitoan altan aurkitu duten arren, ejerzitoko arduradunek diote izen hori duenik ez dagoela, eta justizia oso manto dabil dauden froga guztiei muzin eginik. Eta hau gutxi balitz, Gobernu eta URNG arteko elkarrizketetan, amnistiaz hitzegiten dute: haur bat bortxatu eta hiltzeagatik bi nekazari heriotzarekin zigortu dituzten bitartean, herri oso baten genozidio eta oinazea eragin dutenak amnistiaturik dituzten beldur dira Herri Erakundeak.



FAMDEGUAKo kide de Aura Elenak beste arazo bat ere aipatu zigun: antropologo forenseen urritasuna hain zuzen ere. Momentu honetan dauden salaketei erantzuteko gutxi dira. Bake hitzarmena dela eta badirudi jendea beldurra galtzen hasi dela eta beraien senideen eta beraien herrien egia historikoa aldarrikatu nahi dutela. Lan neketsua 3.000 hilerrri ezkutu dauden herri batean.

Zinatutako bake berriak erantzunik emango al dio herri kolpatu honi?

Testoa: KARMELE PEREZ

"Komite Internazionalistak"eko kidea

Argazkiak: AMAIA ARRIZABALAGA

"Komite Internazionalistak"eko kidea

## BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA

## TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA

## TOKI EDER

Taberna

Tfnoa.: 715438

BOKADILO, AFARI eta  
MERIENDAK

- Aurreko aste bukaera batetan Eskoriatzako jende ugari eskiatzera joan zen Luz Ardidenera Mendi Taldeak antolatutako bidai batetan. Kontatu digutenez dena oso ongi joan zen, betiko kolpeak kenduta. Hurrengo baten ere joateko gogoaz gelditu zen jende asko eta laster edukiko dute aukera.
- Tesa Eskoriatzar entpresak Willians ingelesek erosi dute. Momentuz inolako aldaketarik ez dela egongo uste da, baina bateronbatzuk beren ingelesa hobetzen hasi direla entzun dugu.



• Azken hilabeteetan ahate bat izan dugu bisitari Dorleta auzoan. Aspaldi San Viatorren ere egoten zirela komentatu digute. Erreka erdian hartu du bere bizilekua eta luzerako duela dirudi.

- Futbito txapelketa ere heldu da bere amaierara. Hauek izan dira lehen lau sailkatuak:
  1. Naranja Mecanica
  2. Hi Txo!
  3. You know
  4. Matruko

- Urtarrilak 23an Joseba Rielo insumiso eskoritzarra epaitua izan zen Donostian. Oraindik sententzia irten ez bada ere, 6 hilabetetako gartzela eta 10 urtetako inabilitazio zigorra jasoko du seguruenik. Beraz, zibilki hilik geratuko da.

- Gabon hauetan zozketatutako errifa desberdinetan irtendako zenbakiaketa irabazleak hauek dira:

Dantza taldea: 5308 Ana Rosa Urrutia

Insumiso taldea: 276 Ramon Etxebarria

Amnistiaren Aldeko Batzordeak: 1289 Aitor Kortazar

- Gure herrian oso ezaguna zen Dalmazio (San Viatorreko sukaldaria,...) beste mundura joan zaigu hilabete honetan, urte luze asko praile eta bisitarien zerbitzuan egon ondoren. Goian Bego.
- Abenduko azken egunetan Urte hontarako aurrekontuak onartu ziren, ez istilu gabe. Alkatea ez zen egon gaixo zegoelako eta Herri Batasunako kontzejalak alde egin zuten plenotik aurretik erabakitakoa ez zelako errespetatzen.



H Z  
E U  
M R PUBLIZITATEA  
E E

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

fundazioa  
fundación



**IHAUTERIAK 97***OTSAILAK 6, OSTEGUNA***Urdelardero Eguna**

Goizean ikastetxetako umeek hasiera emango diote ihauteriari Herrian zehar.

Eguerdiko 12etan kalejiraren amaiera eta denok plazara txistorraz gozatzeko.

Arratsaldeko 4,30etan umeentzat jaialdia plazan "Auskalo" taldearekin. Ondoren txokolatada (bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du.

*OTSAILAK 11, ASTEARTEA*

Arratsaldeko 4,30etan, kukumarroak Kultur Etxetik irtengo dira. Leku neutroak Herriko Plazako kioskoa, kontzejupea eta Gorosarri Plazako arkupea izango dira.

Artsaldeko 6etan, Eskoriatzako Bandarekin mozorroen kalejira.

Arratsaldeko 7etan, herri ihauteriaren hasiera. Ihauteriko dantzaldia (Ihauteriko dantza ikasi nahi duenak otsailak 4, 5, 6 eta 10ean frontoian gaueko 9etatik 10etara).

Gaueko 10etan, EGAN taldearekin dantzaldia.

**KINTOAK 97**

Aurreko urtarrilak 14an kintoek bilera izan zuten Kultur Batzordearekin, irtetzeko egunak eta beste zenbait gauza erabakitzeke. Dirudienek kintoak ez daude oso gustora Udaletxeak jartzen dizkien zenbait kondiziokin (irtetzeko egunak, etxafleroen kopurua eta abar):

Hala ere ziur egon zaitezke irtengo direla. Dantza egingo duten egunak honako hauek dira: otsailak 5 (asteazkena) eta 9 (igandea).

**INSUMISO EGUNA**

Aurreko urtean egin zuten letxe aurten ere Insumiso Eguna ospatuko dute gure herriko antimilitaristek.

Azkenengo orduko aldaketarik ez badago, otsailaren 15ean (larunbatean) gertatuko da hau eta honako egitaraua aurkezten dute:

Goizeko 12etan manifa herrian zehar, ondoren poteo herrikoia trikitilari eta bertsolariekin.

Eguardiko 2,30etan babajan popularra herriko plazan edo frontoian (eguraldiak aginduko du).

Bazkalostean bertsolariak, musika eta joku desberdinak.

Iluntzean taberna desberdinetan musika festibalak egingo dira. (oraindik taldeak erabakitzeke daude).

Honez gain egun osoan zehar erakusketa antimilitarista bat egongo da herrian zehar.

**ZINE GOMENDIOA**

EDDIE

Saskibaloia entrenatzailea den emakume bati EEBB-ko talde profesional bat gidatzeko aukera ematen diote. Aktore nagusia Whoopi Goldberg denez barre egiteko aukera aparta. Hala ere, kirola eta bereziki saskibaloia gustoko ez badituzu hobe ez ikustea.

LAZOS ARDIENTES

Mafiako kide bati dirua nola lapurtu erakusten da filme honetan. Gizon honen maitalea eta beste emakume bat arituko helburu honetan. Emakumeak elkar maitemintzen dira pelikulan zehar.

EL AMOR TIENE DOS CARAS

Bi pertsona kultoren arteko maitasun adierazpena da gai nagusia. Bietako Batek sexu harremanik ez du nahi eta honi buruz eztabaidatzen dute bai euren artean eta baita beraien lagunekin ere, bakoitzak bere aldetik.



Urte batzuk badira onazkerok hemen hain gazte ageri diren hauek kinto irten zirenetik. Aurpegi alaiak dituzte. Beraz, gaur egun bezala orduan ere umorea ez zitzaizela falta ikus dezakegu.

Ezkerretik eskubira honako hauek dira:

**Goian:** José García, Antonio Errarte, Jose Juan Zubizarreta, Iñaki Galdos, Pedro Lucero, Federico Izagirre, Felix Uribarren eta Juan Ignacio Etxebarri.

**Behean:** San Vicente, Rafael Errasti, Gardoki (akordeoijolea) eta J. Luis San Miguel

## LAGUNDU EZAZU "ZE BARRI?" EGITEN Asteazkenetan 7retan Kultur Etxean

### KOMIKIA

